



MEMORIA 2017

FESTAK



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



FESTAK



Errege Magoak udaltetxeko terrazan.

ERREGE MAGOAK

2017an, Erregeak goizeko 11etan iritsi ziren Kontxako hondartzara, desfilea baino lehen auzoetara bisita egiteko asmoz. Urtero bezala, desfilea hiriko erdialdeko kaleetan barrena ibili zen arratsaldeko 6etatik aurrera.

Ibilaldian, geldialdiak egin zituzten Antiguán, Amara-Anoetan, Intxaurrondon eta Bidebietan, eta ondoren, Udaletxera jo zuten, non, 15:30etatik aurrera, zain zituzten haur guztiak hartu baitzituzten.

Desfilean, udal konpartsako buruhandiek hartu zuten parte lehen aldiz; autobus turistikoaren gainaldetik, gozokiz blaitu zuten Erregeak ikustera etorritako jendetza.

Desfilea amaitu ondoren, eta ohi bezala, Erregeek Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.

Gainera, Erregeek Altza auzoa bisitatu zuten, eta han Harria parkera hurbildutako haur guztiak hartu zituzten.





FESTAK




Haur danborrada.

HAUR DANBORRADA

Konpainiak eta pertsonaiak urtarilaren 18an -asteazkenarekin- egindako jai batean aurkeztu ziren, Victoria Eugenia Antzokian.

Berritasun gisa, esan dezakegu ezen, Igeldoko zalditxoen konpainia desagertu eta gero, Haur Danborradak poneyak jarri zituela haien ordez, Real Sociedad Hípicaiko lantzarien zaintzapean; bestetik, irizpide jakin

baten arabera, hots, karrozek XIX. mendeko Donostiako gizartea irudika zezatela, artzaina, mandazaina, merkataria, arrantzalea eta emakume donostiarraren irudia gehitu zitzaizkien.



7.697 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak.



FESTAK



San Sebastian eguneko bandera jaitiera.

HELDUEN DANBORRADAK


8.000 lagun inguruk mukuruk bete zuten Konstituzio Plaza,

San Sebastian Egunekeo bandera-jasotzean.

Ekitaldian, hiriko auzoetako danborradetako, Gaztelubide danborradako, Gaztelubideko Gaztainaren Orfeoiko eta Kresala Dantza Taldeko 101 lagunek parte hartu zuten .

Hiriko auzoetako beste hainbat lekutan ere jaso zen bandera.

Egunari amaiera emateko, jendetza izan zen bandera-jaitseran, non Unión Artesana elkarteak izan baitzen agertoki gainean.





Kaldereroak.


BERTSO-JAIALDIA

Urtarrilaren 22an, patroiaien festaren ondoren, bertso-jaialdia izan zen Antzoki Zaharrean, arratsaldeko 6etan, eta Euskal Herriko Txapelketan izandako sei bertsolarik hartu zuten parte: Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi, Nerea Elustondo, Sustrai Colina, Miren Amuriza eta Igor Elortza.

KALDEREROAK

Kaldereroen jaia otsailaren 4an egin zen, larunbatarekin.

Parte Zaharreko kaldereroak



Auzoetako kaldereroak



ERREGINA:

JOSE MARI AGIRRETXE "PORROTX"

DAMAK:

NAGORE GARCIA DE ANDOIN

(Donostia Erietxeko

Onkohematologia Unitatea)

CONCHI GEREÑO LÓPEZ (Aspanogi)



FESTAK



Inauteriak

INUDE ETA ARTZAINAK

Inude eta Artzainen konpartsak hainbat auzotan atera ziren kalera.



Otsailaren 6a

Parte Zaharra
Kresala Elkarte

Gros
Groseko Artzain eta Iñudeak "Artainu"

Amara Berri eta
Loiolako Erribera
Ikasbide Guraso Elkarte



Otsailaren 25a

Antigua
Antiguotarrak Dantza Taldea




Iñudeak.


INAUTERIAK

Inauterietako programa nagusia otsailaren 23tik 27ra bitarte egin zen.

Urte honetan, Momo jaingoarena egitea Bebés de la Bulla fanfarekoei egokitu zitzaien, eta haiek Manolo García izendatu zuten erregina, eta Carlos Andrés, Carlos Espolosín eta Montxo Ruiz dama.



Altza, Intxaurrondo eta Bidebieta auzoetan ere ospatu ziren inauteriak. Programaturiko jardueren artean, Altzako Piñata Igandea, non 26 taldek hartu baitzuten parte.



San Juan sua Saguesen.



SAN JOAN BEZPERA

Ekainaren 23an, arratsaldeko 7etan, agintarien soka-dantza egin zen Konstituzio Plazan, erdian ipinitako lizarraren inguruan. Ekitaldian, hiriko alkateak eta zinegotzi batzuek hartu zuten parte, bai eta Goizaldi Dantza Taldeko dantzariak eta txistularien udal bandak ere.

Auzoetan ere egin zen udaren etorrera ospatzeko jai hau.

San Joan bezperaren ospakizuna auzoetan

Erdialdea	Morlans	Sagues
Amara Zaharra	Loioa	Txomin Enea
Parte Zaharra	Martutene (2)	Bidebieta
Lorea	Aiete (2)	San Roke
Igeldo	Oleta	Intxaurrondo (2)
Antigua	Herrera	Amara Berri
Añorga Txiki	Altza (2)	



FESTAK



Aste Nagusiko kontzertua Saguesen.

ASTE NAGUSIA

Abuztuaren 12tik 19ra bitarte izan zen. Guztira, 460 jarduerak osatu zuten jai-programa kulturantzun eta parte-hartzailea, era eta adin guztietarakoak. Easo Abesbatzako Eskolaniak eta Kresala Elkarrekin kantatu zuten **Artillero** jaiei hasiera eman zien kanoikadarekin.

Aste Nagusia auzoetan ere izan zen berriz ere, eta jarduerak programatu ziren Amaran (Aitzol parkean), Antiguan (Pio XII.a plazan) eta Grosen (Katalunia plazan); tartean,

abuztuaren 15eko 00:00etan *Festara* kantatzea.

Berrikuntza txalotuenetako bat erraldoi eta buruhandien udal konpartsak auzoetara egin zuen bisita izan zen.

Nabarmenezkoa, gainera, Tomas Alba plazan (Saguesko zabalunean) programaturiko kontzertuetan jende asko izan zela berriz ere, Kursaleko terrazetako argiterian aldaketa egokiak egin izana, eta mariachi musika bandak izandako arrakasta, Kataluniako plazan jaiei buru emateko egindako emanaldian.

Jaien amaieran Valentziako Ricasa pirotekniak eskainitako ikuskizun piromusikala berriki zendutako pop eta rock artista ezagunen airez baliatu zen, eta donostiarren kritikarik onenak jaso zituen.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Bartzelonan gertatutako atentatu terrorista gaitzesteko eta biktimei elkartasuna adierazteko eginiko deialdiari abuztuaren 17an programatutako ekitaldi guztietan elkartutako herritarrek emandako erantzuna: minutuko isilunea egin zen eta, amaieran, biktimak gogoratzeko txalo zaparrada.

Aste Nagusia
(abuztuaren 12tik 19ra)

Ikusleen zenbatespena
1.140.000

Agertokiak
28

Jarduerak
460

Aste Nagusiko sariak

Herri-kirolak

Urrezko kopa: irabazle, Aitzol Atutxa

Igeldoko Harria: irabazle, Jokin Eizmendi

Aste Nagusiko X. Marmitako Lehiaketa

Bikote irabazlea: Joseba Nuñez eta Asier Castresana

Bertako produktuak erabiliz egindako Gazteentzako VI. Lehiaketa Gastronomikoa

Bikote irabazlea: Ane Otaegi eta Nerea Rey

Aste Nagusiko I. Ajoarriero Lehiaketa

Bikote irabazlea: José Manuel Irigoyen eta Tomás Nuñez

Aste Nagusiko Valentziar Paellaren I. Lehiaketa

Bikote irabazlea: Marian González eta Asier Grijalba

Aste Nagusiko I. Arkume Menestra Lehiaketa

Bikote irabazlea: Baudilio Castrillo eta Rodrigo Castrillo



Aste Nagusiko su artifizialak.

SU FESTEN NAZIOARTEKO 54. LEHIAKETA JAIALDIA

Zazpi enpresa piroteknikok (bost espainiar eta bi atzerriar) hartu zuten aste osoa iraun zuen lehiaketan.

EUSKAL JAIK

78 jarduera egin ziren abuztuaren 31ren eta irailaren 10aren artean, eta halaxe osatu zen programa, zeinaren lehen jarduera Kontxako banderetarako sailkatze-estropadak izan baitziren, emakumeena eta gizonezkoena.

Kirol jarduerak, gastronomikoak, folklorikoak, euskararen eta gure

kulturaren ingurukoak, era guztietako pertsonei zuzenduak.

Azpimarratzekoa Easo Abesbatzaren Eskolaniak 25. urteurrena zuela-eta Gero Axular Datza Taldearekin batera eskainitako emanaldia, hilaren 9an, Konstituzio Plazan.

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina programaturiko jarduera guztiak egin ziren.

**Su Festen
Nazioarteko 54.
Lehiaketa Jaialdia
(Abuztuaren 12tik 19ra)**

**Ikusleen zenbatespena
500.000**



**Piroteknia parte-
hartzailleak**

Accitana M^a Angustias
(Granada)

Hermanos Caballer
(Castelló)

Pirotecnia del Mediterráneo
(Valentzia)

Poleggi
(Italia)

Peñarroja
(Castelló)

New Year Fireworks
(Txina)

López
(Santiago de Compostela)

Urrezko Maskorra:
Hermanos Caballer

Zilarrezko Maskorra:
Peñarroja

Brontzezko Maskorra:
López

Gazteriaren Saria:
Peñarroja

Herri Epaimahaiaren Saria:
Peñarroja

**Aste Nagusiko Su Festen III.
Argazki Lehiaketarako deialdia**
egin zen, interesa duten
guztientzat, eta lan irabazlea
izango da lehiaketaren 55. edizioa
iragartzeko erabiliko den irudia.



Kontxako Estropadak.

ESTROPADAK

Bi banderak, emakumeena eta gizonezkoena, parte-hartze baldintza berdinetan egin ziren: sailkapenerakoa abuztuaren 31n, eta lau partaideko bi txanda hurrengo bi igandeetan, irailaren 3an eta 10ean. Ziaboga bakarrera jokatu ziren, emakumeena 1,5 itsas miliako luzerakoa, eta gizonezkoena 3 itsas milakoa.

Bigarren igandeko estropada, emakumeena zein gizonezkoena, atzeratzekotan egon ziren, itsaso txarra zegoela eta. Hain zuzen ere, itsasaldiaren indarrak eraman egin zituen emakumeen kategoriako balizak, eta ezin izan ziren ipini proba horren araudiaren barruan egiteko moduan (lau kale). Ondorioz, eta klub parte-hartzaileek adostu eta gero, emakumeen proba erabilgarri zegoen kale bakarretik egin zen (4. kalea, uharte ondokoa), traineruen

artean minutu bateko tartea utzita. Estropada oso gogorra izan zen, eta une baten bi traineruk ia elkar jo zuten, baina patroien jokaera egokiari esker, ez zen kalterik gertatu.

Gizonezkoen estropada pentsatuta zegoen bezala egin zen, emakumeenak baino egoera hobean aurkitu baitzuen itsasoa. Olatu handien eta itsaso zakarraren

kontra jokatu behar izan zuten, eta, horri esker, irudi ezin ederragoak eskaini zituzten, errepikatzen zailak gertatuko direnak.

Eguraldi txarra zela eta, zaleak dezente gutxiago izan ziren.

Banderak ematea Ciudad de San Sebastián katamaranetik egin zen, portu barruan.

Kontxako X. Bandera (emakumeentzat)

Traineru parte-hartzaileak	14
Sailkatuak	Arraun Lagunak Donostia Club de remo Mecos-Riveira Deusto-Tecuni-Bilbao Donostiarra Hernani Iparragirre Sagardotegia Hibaika jamones Ancín Orio - Babyauto San Juan Iberdrola
Irabazlea	San Juan Iberdrola

Kontxako Bandera (gizonezkoentzat)

Traineru parte-hartzaileak	25
Sailkatuak	Bermeo-Urdaibai-Avia-Campos-Enagas Donostiarra Hondarribia Kaiku Producha Orio-Babyauto San Juan Sumelec Tirán - Pereira Zierbena Bahías De Bizkaia
Irabazlea	Orio-Babyauto

Donostiako Estropadak (Abuztuaren 31 eta Irailaren 3 eta 10ean)

Ikusleen zenbatespena 20.000 lagun eguneko



FESTAK



Santo Tomas Feria.

SANTO TOMAS FERIA

Hiria baserri-giroko merkatu bihurtu zen, txistorra protagonista nagusi bihurtuta festa gunean banatutako 201 postuetan, askotariko produktudun postuetan. Adin guztietako jendearentzat prestatutako programazioarekin osatu zen feria eta ez ziren falta izan herri kirolak (pilota, aizkolariak...), haurrentzako lantegiak, abereen

erakusketa, fruta, barazki, ezti, txistor lehiaketak... Baserritar postuen I. Lehiaketa ere izan zen.

Bestalde, Trinitate plazan emakumeentzako Esku-pilotako II. Lehiaketa eta Emakume Aizkolarienezako Urrezko I izan ziren, emakumeen kirola bultzatzeko konpromisoaren seinale, eta jende asko erakarri zuten biek ala biek. Bi pauso berri kirola sustatzeko

Donostiako jaien arloan.

Feriako protagonista nagusia ezin ahaztu: Ursula, bere 370 kiloekin egun osoa eman zuen Konstituzio Plazan.

2017an, zortzi auzok hartu zuten parte ferian, zenbait jarduera antolatuz: Antigua, Amara Berri, Amara Zaharra, Gros, Ibaeta, Intxaurren, Loiola eta Morlans.

**Ikusleen
zenbatespena
75.000
lagun**

**Urdemea
"Ursula"**



**Jatorria: Leitza
Pisua: 370 kg.**

**201
Postu**



Ursula izeneko txerria.



Olentzero eta Mari Domingi Udaletxeko terrazan.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Abenduaren 24an menditik jaitsi ziren Olentzero eta Mari Domingi, haien zain ziren haur guztiengana hurbiltzeko.

Trikitilari jantzitako txotxongilo erroldoi batzuek bidea adierazi

zieten Udaletxera arte, eta han hartu zituzten gutunak entregatzera etorritako haurrak.

Bien bitartean, Eskola eta Gero Axular dantza-taldeek zenbait jarduera egin zituzten Udaletxe aurreko terrazan (baserritar jantziaren zapia behar bezala ipintzeko lantegia, gaztaina erreen banaketa...)

18:30ean, Olentzero eta Mari Domingik desfilea abiatu zuten Erdialdeko kaleetan, artzainek, galtzagorriek, farol-eramaleek, abereek...lagunduta, eta haur askoren gutunak jasotzen jarraitu zuten.



EGUBERRIAK

2017an, Festak unitateak Donostiako Sustapen elkartearekin batera antolatu zituen Gabonetako II. Merkatua zela-eta egin ziren jarduerak. Ekarpen hauek egin zituen: plataforma bat ipintzea Urumea ibaiaren erdian (Santa Katalina eta Maria Kristina zubien artean), nondik suzko erroberak jaurti baitziren abenduaren 4, 23 eta 30ean, eta noria bat lortzea merkatuaren osagarri jostari modura.



FESTAK

AUZOETAKO JAIK

Festak unitateak kudeatzen ditu jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz.

Jaien izena	Egunak
Antiguako San Sebastian	Urtarrila, 12-21
Ibaetako jaiak	Otsailak 25 – martxoak 1, 3, 4, 5, 6
Txanpontxo jaiak	Maiatza, 11-14
Morlans	Maiatza, 19-21
Larratxoko jaiak	Ekaina, 1-14
Antiguako San Juanak	Ekaina, 9-23
Herrerako jaiak	Ekaina, 10,11 / 15-23
Amara Berriko festak	Ekaina, 16-18/23
Oletako jaiak, San Juanak	Ekaina, 21-25
Intxaurrendoko San Juan jaiak	Ekaina, 22-24
Igeldoko San Pedro jaiak	Ekaina, 23, 24, 25, 29, 30; uztaila, 1, 2
Intxaur jaiak - Intxaurrendoko	Ekaina, 30/uztaila, 1-2
Altzako San Martzial jaiak	Ekainaren 24tik uztailaren 2ra
Añorgako jaiak	Uztaila, 8, 9/13-16
Karmengo jaiak (Amara Berri)	Uztaila, 7/14-16
Karmengo jaiak (Kaia)	Uztaila, 13-16
Zipotz jaiak	Uztaila, 13-16
Zubietako herri-jaiak	Uztaila, 24-31
Amarako jaiak	Uztaila, 27-31
Loiolako San Inazio Jaiak	Uztaila, 28-31
Añorga Txiki	Iraila, 1-3
Txomin Eneako jaiak	Iraila, 8-10
Intxaurrendoko Zaharreko jaiak	Iraila, 7-10/14
Aieteko jaiak	Iraila, 8-17
Porrontxo jaiak	Iraila, 11-17
Jolastokieta	Iraila, 13-17
San Festo (Loiolako Erribera)	Iraila, 15-17
Udaren amaiera (Altza)	Iraila, 22-24
Amara Berriko Jai Herrikoia	Urria, 5-8
Martu Jaiak	Urria, 7 / 11-15



FESTAK



xxx

BESTE JARDUERA BATZUK

Festak unitatetik, behar ziren baimen eta zerbitzuak kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkartek proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

7 Jarduerak Etxe erregionales jaia

Beste jarduerak 62

Minbiziaren kontrako lasterketa
Casal de Catalunya – calçoten
deboraldia

Liburu zahar eta berrien azokak
Gipuzkoako marinel zaharrei
omenaldia

AFAGI, alzhemerraren inguruko
ekitaldiak

Zipristin – Tamayo Pintura Lehiaketa

Rallye histórico Vasco-Navarro

Tasta Catalunya

Gimnástica de Ulía elkartearen
mendeurrena

Antxeta elkartearen 50. urteurrena

Santa Ageda

Sagardo Apurua

...

SENIDETZEAK

Marugame:

Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako. Marugameko High Schooleko ikasle talde bat Donostiara etorri zen bisitan, uztailaren 30etik abuztuaren 3ra bitarte. Laguntzaile izan genituen Ekintza Ikastola eta AIKO eta Bonsaiaren Adiskideen elkarteetako kideak. Ikasle taldeak zenbait familiaren etxeetan hartu zuen ostatu, eta bisitak eta ibilaldiak egin zituen Donostian eta Gipuzkoan zehar.

- Kultura-truke polita izan zuten, eta egonaldiaren oso oroitzapen onarekin itzuli ziren Japoniara.

- Japoniera-ikasle bik egonaldia egin zuten Marugamen, hizkuntza hobeto ikasteko.

Trento: Waterpolo Donostia klubeko talde batek *Pallio dell'Oca* baltsa-lehiaketan hartu zuen parte (ekainaren 24an), San Vigilioren jaietan.

Wiesbaden: Araoz Gazte abesbatza Wiesbadenera joan zen bisitan, aurreko urtean, 2016an, Wiesbadengo Mädchenchor abesbatzak Donostiara egindako bisitari erantzunez.

ESKERRAK BABESLEEI

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, beraiek gabe zenbait jarduera egin ezinik geratuko baikin: Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, Frigo, Super Amara, Adegi...



EL DIARIO VASCO

